

Euskal AEko enpresen %93,0k darabiltzate e-Administrazioaren zerbitzuak 2019an


Euskal AEko ia administrazio publiko guztiek dute web-orririk

Euskal AEko enpresen %93,0k izapide elektronikoak egiten dituzte Administrazio Publikoarekin 2019an, Eustatek egindako datuen arabera. Izapidetzea izan liteke zuzena, hirugarrenen bidez (aholkularitzak...) edo bion bidez. Hala, enpresen %48,9k zuzenean egin dute izapidere bat, 2017an baino ehuneko 8 puntu gehiago, eta %73,4k hirugarrenen bidez egin dute, bi urte lehenago baino ehuneko 4,5 puntu gehiago.

10 langile edo gehiagokoetan, izapidetze elektronikoa %95,7koa da. Enpresa horiek, tamaina handiagoagatik dituzten baliabideengatik, zuzenekora jotzen dute gehiago, %80,6, ezen ez hirugarrenen bidez, %55,8.

Izapideok egiten dituzte enpresek era elektronikoz gehien bat Foru Aldundiekin (%84,1) eta Administrazio Zentralarekin (%72,3). Ehunekoetan eragina dute zerga nagusiekiko eskumenek. Ondoren, Eusko Jaurlaritzarekin (%54,2), tokiko entitateekin (%29,7), Europar Batasunarekin eta besterekin (%9,8).

Administrazio publikoarekiko izapideak era elektronikoan egiten dituzten euskal enpresak 2019an. (%)



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta Administrazioan. IGI-Administrazioa

10 langile edo gehiagoko enpresetan ehunekoak altuagoak dira, berriz ere. Tamaina horretan, lehenik eta behin, Administrazio Zentrala nabarmentzen da, zeinarekin elektronikoki elkarrengaitan baitute tamaina horretako enpresen %86,4k, eta, ondoren, Foru Aldundiak (%85,1). Jarraian agertzen dira Eusko Jaurlaritza, %76,3; tokiko entitateak, %48,0; eta, azkenik, Europar Batasuna eta beste batzuk, %21,9.

Euskal AEko ia administrazio publiko guztiek dute web-orriak

Administrazio publikoko establezimenduen %97,5ek web orria dute 2019an, berezkoa edo kide den erakundearena. Bi urte lehenago, 2017an, zen egoeraren aldean ehuneko ia 5 puntu igo da (%92,6 2017an). 10 langile edo gehiagoko establezimenduen kasuan, proportzio hori are handiagoa da, %98,8.

Oinarritzko IKT ekipamenduez bezainbatean, Euskal AEko Administrazio Publikoaren ia establezimendu guztiek dute horrelakorik 2019an. Web-orriaz gain, establezimendu publikoen %99,8k ordenagailua dute, eta %99,6k posta elektronikoa eta Internetarako konexioa. Nahiz eta den ezarpen txikieneko IKT ekipamendua, establezimendu publikoen %82,3k dute telefono mugikorrik.

Enpresen sektorearen aldean, administrazio publikoetan sartuagoak daude Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT). Web-orriaren eskuragarritasunaren kasuan, aldea portzentajezko 40 puntu baino gehiagokoa da administrazioaren alde (%54,6 enpresen sektorean). Hala ere, telefono mugikorreko ekipamendua ohikoagoa da enpresen sektorean (%93,4) administrazio publikoaren sektoreko establezimenduetan baino (%82,3).

2019an IKT ekipamenduak darabiltzaten enplegatu publikoen portzentajeak ere oso handiak dira. ordenagailua langile publikoen %90,5ek darabilte; posta elektronikoa, %92,7k; eta %87,5ek Internet. Enpresaren sektorean, pertsonalaren erabileraren portzentaje horiek dira, hurrenez hurren, %71,2, %66,9 eta %66,7.

IKT ekipamenduak eta erabilera-maila Euskal AEko administrazio publikoko establezimenduetan. 2019 urtea

	Ordenagailu pertsonala		Posta elektronikoa		Internet		Telefono mugikorra	Web-orria
	establ. %	%/enpleg	establ. %	%/enpleg	establ. %	%/enpleg	establ. %	establ. %
Guztira	99,8	90,5	99,6	92,7	99,6	87,5	82,3	97,5
Herri Administrazioa eta defentsa	100	91,3	100,0	94,4	100,0	88,0	79,3	96,5
Hezkuntza	100	96,4	100	97,5	100	96,4	68,0	99
Osasun jarduerak	100	94,2	100	97,9	98	92,4	94,4	100
Jarduera sozial, kulturalak eta beste	100,0	79,4	99,5	83,0	100,0	69,3	85,7	97,2
Administrazioaren beste jarduera batzuk	98,8	78,6	98,3	77,1	98,8	73,7	98,0	95,9

Iturria: Eustat. Encuesta sobre la sociedad de la información -ESI- Administración

Portzentaje altu horiek, hala ekipamenduetan nola pertsonalaren erabileran, establezimendu publikoetan ageri dira enplegu-geruza edozein delarik ere. Hortaz, Administrazio Publikoan ez du kasik eraginik establezimenduen tamainak.

Gainera, ia establezimendu guztiek, %99,2k, segurtasun informatikoko neurriren bat hartzen dute, eta, bereziki, software eguneratua erabiltzen dute (%97,5), bai eta pasahitz seguruak ere (%96,9).

Interneten sartzeko erari dagokionez konexioa duten establezimenduetan, denek, %99,9k, dute sarbidea konexio finkoen bitartez eta, gainera, %73,7k dute sarbidea konexio mugikorren bidez. Lehenen artean zuntz optikoa da nabarmentzen (kablea, FTTH...), %88,0rekin, zeinek bi urtean soilik ehuneko 9 puntuko hazkundera izan baitu (%78,9 2017an). Konexio mugikorren kasuan, banda zabaleko telefono mugikorra da nagusi, establezimenduen %70,9rentzat eskuragarri dagoena, baita ere 2017tik aurrera ehuneko 9 puntutik gorako hazkunderarekin.

Euskal AEko Administrazio Publikoak garrantzi handia ematen dio Interneten web-orri bidez agertzeari; hala ondorioztatzen da web-orri hori duten establezimenduen portzentaje altutik (%97,5), 10 langile eta gehiagoko establezimenduetan %98,8ra iritsiz. Enpresen sektorearen kasuan, ehunekoia %54,6ra mugatzen da establezimenduen guztizkorako, eta, hurbilago, %92,3ra hamar langile eta gehiagoko enpresetarako.

Web-orri horietan erakundeari berari buruzko Informazio orokorra aurki daiteke kasuen %100etan; Produktuen katalogoak edo prezio-zerrendak, %60,7tan; Gizarte-komunikabideetako profiletarako estekak, %59,4tan; edo Enplegu-eskaintzei buruzko informazioa, % 57,7tan, beste aukera batzuen artean.

Hizkuntzak zeinen bidez sar daitekeen: euskaraz web-orrien %99,0tan, gaztelaniaz %98,7tan, ingelesez %35,9tan eta beste hizkuntza batzuen bitartez %17,4tan. Egoera enpresen sektorearen antzekoa da, euskararen kasuan izan ezik; izan ere, enpresen establezimenduen web-orrien %42k baino ez dute hizkuntza hori.

Hizkuntza erabilgarriak administrazio publikoko establezimenduetako Web orrietan (%). Euskal AE. 2019

	Web orria	Webeko hizkuntzak			
		Euskara	Gaztelania	Inglesa	Besteak
Guztira	98,6	99,0	98,7	35,9	17,4
Lurralde historikoa					
Araba	100,0	98,4	98,7	26,4	20,2
Bizkaia	100,0	99,3	99,0	44,8	13,1
Gipuzkoa	96,2	98,9	98,2	29,3	21,7
Jarduera-adarra					
Herri Administrazioa eta defentsa	98,8	99,1	99,2	42,0	27,5
Hezkuntza	100,0	99,7	96,3	19,1	2,4
Osasun jarduerak	100,0	100,0	100,0	15,3	0,0
Jarduera sozial, kulturalak eta beste	96,7	98,1	99,5	39,8	19,3
Administrazioaren beste jarduera batzuk	96,6	98,0	99,6	61,9	34,0

Iturria: Eustat. Informazioaren gizarteare inkesta Administrazioan. IGI-Administrazioa

Euskal AEko establezimendu publikoen %64,1ek software librea dute

Establezimendu publikoen %64,1ek software librea dute 2019an; esaterako, Internet nabigatzaileak, ofimatika-programak, sistema eragile doako edo irekiak (Linux...), etab. 10 langile eta gehiagokoetan, %69,8k.

Bestalde, merkataritza elektronikoan establezimendu publikoen %21,3k hartzen dute parte 2018ko abenduko datarekin.

Informazio gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62